

BAZTANGO HARANEKO IKASTETXEETAKO GURASO ELKARTEEK (APYMAK) SUSTATUTAKO HEZKUNTZA, KULTURA ETA PRESTAKUNTZA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDI PUBLIKOAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

1. Deialdiaren xedea.

Oinarri hauen xedea Baztango ikastetxeetako guraso elkarteek dirulaguntzak ematea da, ikasleei eta haien familiei zuzendutako hezkuntza, kultura, sentsibilizazio eta sustapen jarduerak egin ditzaten.

Jarduera hauek 2025-2026 ikasturtean zehar garatu eta eskola-orduz kanpo burutu beharko dira, dela eguerdiko ordutegian, eskolaz kanpokoan edo ohiko eskola-ordutegitik kanpo.

Diruz lagundutako jarduera hauek inolaz ere ez dute ikastetxeko derrigorrezko curriculum-edukirik ordezkatzeko, modu estrukturalan osatzeko edo haiekin bat egingo; eskolaz kanpokoak, osagarriak eta arautu gabeak izan beharko dute.

2. Deialdiaren helburua

Deialdi honen helburua familiek Baztango ikastetxeetako hezkuntza-bizitzan parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzea da, guraso elkarteek antolatutako hezkuntza, kultura, prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak bultzatuz.

Halaber, gurasoak seme-alaben hezkuntza-prozesuan inplikatzeko bilatu nahi da, familien eta hezkuntza-komunitatearen arteko lankidetzak bultzatuz, bai eta ikasleen ongizatean, bizikidetzan eta prestakuntza integrarean lagunduko duten jarduerak sustatuz.

Modu osagarrian, jarduera hauek parte hartzen duten familien bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzen lagun dezakete.

3. Erakunde onuraduna

Baztango ikastetxeetan legez eraturako guraso elkarteak izan daitezke onuradun, baldin eta indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

4. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz laguntzen ahalko dira ondorengo ildoetan sartzen diren jarduerak:

- Euskara eta inguruko tradizio kulturalak
- Familiendako eta ikasleendako prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak, hezkuntza, gizarte, kultura edo komunitate intereseko gaietan.
- Genero-berdintasuna, hezkidetzak, gizarteratzea eta kulturartekotasuna sustatzeko jarduerak.
- Diziiplina artistikoak sustatzea eta garatzea

Jarduerak izaera hezitzailea, osagarria eta ez-arautua izan beharko dute.

5. Diruz lagun daitezkeen gastuak eta diruz lagundu ezin direnak:

5.1. Diruz lagundu daitezkeenak:

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira dirulaguntzaren xede diren jarduerak burutzeko beharrezkoak direnak, haiei zuzenean lotuta daudenak eta behar bezala justifikatuta daudenak.

Zehazki, honako hauek hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat: kanpoko langileen ordainsariak (begiraleak, hizlariak, prestatzaileak edo profesionalak), hezkuntza-, kultura- edo prestakuntza-jarduerak egiteko enpresak edo erakundeak kontratatzea, eta hezkuntza-, kultura-, prestakuntza- edo arte-jarduerak antolatzearen eta gauatzearen ondoriozko gastuak, eskolaz kanpoko orduetan egiten badira.

Era berean, diruz lagundu ahal izanen da jarduerari zuzenean lotutako material suntsikorra erostea (material didaktikoa, artistikoa edo hezitzailea). Salbuespen gisa, elikagai-gastuak diruz lagundu ahal izanen dira hezkuntza-helburu espezifikoak duten jarduerari zuzenean lotuta eta behar bezala justifikatuta daudenean.

5.2. Diruz lagundu ezin direnak:

Ez dira diruz lagunduko erakundearen funtzionamendu arrunteko gastuak, hala nola hornidurak, alokairuak, gestoria- edo administrazio-zerbitzuak, ezta guraso elkarteko langileen ordainsariak ere.

Ez dira diruz lagunduko, halaber, dagokion fakturaren bidez profesionalak direla egiaztatzen ez duten pertsona fisikoei egindako ordainketak, ez eta hezkuntza-, kultura- edo prestakuntza-helbururik gabeko jardueren gastuak ere.

Era berean, kanpo geratzen dira ondasun inbentariagarrietan egindako inbertsioak, bai eta diruz lagundutako jarduerari zuzenean lotuta ez dagoen edo behar bezala justifikatuta ez dagoen bertze edozein gastu ere.

GASTU MOTA	DIRUZ LAGUNDUA	OHARRAK
Monitoreak, hizlariak eta kanpoko langileak	✓ Bai	Jarduerari zuzenean lotuta eta fakturarekin.
Hezkuntza- eta kultura-zerbitzuetako enpresak edo erakundeak	✓ Bai	Zuzeneko lotura jarduera gauatzearekin
Hezkuntza, kultura edo prestakuntza-jarduerak	✓ Bai	Eskola-orduetatik kanpo eta hezkuntza-helburuarekin
Material suntsikorra (didaktikoa, artistikoa, hezitzailea)	✓ Bai	Jarduerari zuzenean lotuta
Hezkuntza-jarduerari lotutako elikadura	✓ Bai (salbuespena)	Jarduera pedagogiko justifikatuaren parte bada soilik
Funtzionamendu gastuak (argia, ura, alokairua, gestoria)	✗ Ez	Erakundearen egiturazko gastuak
Guraso elkarteko langileen soldatak	✗ Ez	Ezin dira diruz lagundu
Ordainketak ez profesionalak (fakturarik gabeko senideak)	✗ Ez	Akreditatutako zerbitzu profesionalak soilik
Hezkuntza-helbururik gabeko jarduerak	✗ Ez	Jai-izaera hutsa dutenak kanpoan gelditzen dira
Inbertsioak edo ekipamendu inbentariagarria	✗ Ez	Diruz ez-lagungarriak
Justifikatu gabeko gastuak	✗ Ez	Faktura eta ordainagiria nahitaezkoak

dira.

6. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak/proiektuak/jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epea

6.1. Jardueren baldintza orokorrak

Diruz lagundutako jarduerak eskola-komunitate osoaren partaidetzari irekia egon beharko du, eta Guraso Elkarteko kide ez izatea ezingo da izan parte hartzea ukatzeko arrazoia. Horrela, jarduerak ikastetxeko ikasleei edota haien familiei zuzenduta egon beharko dira nagusiki, eta bertze ikastetxe batzuetako ikasleek zein familiek ere parte hartu ahal izanen dute.

Bertzeak bertze, honako hauek jaso ahal izanen dira: gurasoentzako prestakuntza-jarduerak, jolas- eta hezkuntza-jarduerak, tailerrak, hitzaldiak, eskolaz kanpoko programak, arte- eta kultura-jarduerak, bai eta hezkuntza-komunitateko kideen arteko bizikidetza eta harremana errazten dutenak ere.

Nolanahi ere, jarduerak eskola-orduz kanpo garatu beharko dira.

6.2. Jardueren edukia eta helburua

Jardueren edukiak ikasleen eta familien prestakuntza osoari lagundu beharko dio, bizikidetza-, berdintasun-, errespetu-, inklusio- eta aniztasun-balioak sustatuz.

Era berean, honako hauek sustatu beharko dituzte:

- Edozein indarkeria-adierazpenen aurkako jarrera, arreta berezia jarritz genero-indarkerian.
- Belaunaldien arteko harremanak
- Ingurunea, kultura eta herriko historia ezagutzea
- Ikasleen eta familien arteko bizikidetza eta komunitate-lana
- Zaintzaren eta hezkuntza- zein etxe-lanen erantzukidetasuna
- Euskararen sustapena

6.3. Gauzatze-aldia

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak 2025eko azaroaren 2tik 2026ko urriaren 31ra bitartean garatu beharko dira.

6.4. Kanpoan geratzen diren jarduerak

Deialdi honetatik kanpo uzten dira, berariaz:

- a) Hezkuntza-komunitateko ikasleak eta/edo familiak helburu ez dituzten jarduerak. Nolanahi ere, bertze ikastetxe batzuetako (Haranekoak nahiz bertze eremu batzuetakoak) ikasleek eta familiek ere parte hartu ahal izanen dute, baldin eta jardueraren hezkuntza-, kultura- edo prestakuntza-xedea behar bezala justifikatzen bada.
- b) Giza eskubideak, bizikidetza-balioak edo pertsonen duintasuna errespetatzen ez dituzten jarduerak; baita edukiz zein mezuz diskriminatzaileak, sexistak, arrazistak, xenofoboak, homofoboak edo transfoboak direnak, indarkeria goratzen dutenak edota izaera politiko zein alderdikidea dutenak ere
- c) Berezko finantzaketa edo kanpoko finantzaketa nahikoa duten eta finantza-defizitik ez duten jarduerak.
- d) Udalaren edo bertze erakunde publiko nahiz pribatu batzuen dirulaguntza jaso duten jarduerak, xede bererako finantzaketa bikoitza badago.
- e) Hezkuntza-jarduera zehatz eta behar bezala justifikatu bati zuzenean lotuta ez dauden merienda, bazkari edo elikagaien gastuak.

7. Aurrekontu-kredituak, gehieneko zenbateko osoa eta dirulaguntzaren banakako zenbatekoa.

7.1. Gehieneko zenbateko osoa

Deialdi honetako gehieneko diru-hornidura 6.000 eurokoa da, udal-aurrekontuan erabilgarri dauden kredituen kargura.

7.2. Aurrekontu-aplikazioa

Deialdi honetako dirulaguntzak honako aurrekontu-aplikazio honen kargura finantzatuko dira:

2026ko ekitaldiko udal-aurrekontuko **1-3269-4890001 «Hezkuntza-jardueretarako Guraso Elkarteentzako dirulaguntzak»** Aurrekontu-aplikazio horretan esleitutako kreditu guztia agortzen ez bada, gerakin hori 1-3340-4890000 «Kultur elkarteentzako dirulaguntzak» aurrekontu-aplikaziora bideratuko da.

7.3. Dirulaguntzaren banakako zenbatekoa eta hori finkatzeko irizpideak

Erakunde onuradun bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa honela zehaztuko da: benetan justifikatutako diruz lagun daitekeen gastuaren arabera, oinarri hauetan ezarritako irizpideetan oinarrituta lortutako balorazioaren arabera eta, hala badagokio, paragrafo honetan aurreikusitako gainbanaketa aplikatzearen arabera.

Oro har, dirulaguntzak diruz lagundutako jardueraren aurrekontu onartuaren % 70 finantzatu ahal izanen du gehienez, betiere jarduera hori behar bezala zuritzen bada.

Erakunde onuradun bakoitzari emandako dirulaguntzak ez du inola ere 2.000 euroko muga gaindituko.

Oinarri hauetan aurreikusitako balorazio-irizpideak aplikatu ondoren erakunde onuradunei legozkiekeen dirulaguntzen zenbatekoen baturak deialdiaren gehieneko diru-hornidura gainditzen badu, kreditu erabilgarria haien artean hainbanatuko da, hasieran egokituko litzaiekeen zenbatekoaren proportzioan, betiere erakunde bakoitzeko dirulaguntzaren gehieneko muga errespetatuz eta finantzaketaren gehieneko ehunekoa eta diruz lagundu daitekeen gastu justifikatua gainditu gabe.

8. ERAKUNDE ONURADUN IZATEKO BALDINTZAK

Erakunde onuradun izan daitezke oinarri hauetan eta dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen dituzten Baztango Ibarreko ikastetxeetako guraso elkarteak, beti ere baldintza hori betetzeko aurreikusitako debeku-kausaren batean sartuta ez badaude

Eskaerak aurkezteko epea amaitzerako, erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte:

ESKAKIZUNA	EGIAZTATZEKO MODUA
Hezkuntza-arloan jarduerak garatzea, estatutuetan ezarritakoaren arabera.	I. eranskina
Legez eratutako pertsona juridikoa izatea eta Nafarroako Gobernuako Elkarleen Erregistroan edo dagokion erregistro publikoan izena emanda egotea.	Erakundearen estatutuen kopia eta dagokion erregistroko izen-ematearen ziurtagiria. Dokumentazio hori lehendik Baztango Udalaren esku badago, nahikoa izanen da legezko ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea.
Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea	Ogasun Foralak eta Gizarte Segurantzak emandako erantzukizunpeko adierazpena edota egunean egotearen ziurtagiriak.

Baztango Udalak aurretik emandako dirulaguntzen egiaztapena egunean izatea.	Erakundearen erantzukizunpeko adierazpena eta Udalaren barne-egiaztapena, hala dagokionean.
Lan-jardun diskriminatzaileengatik edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta genero-indarkeriaren arloko araudia ez betetzeagatik zigortua ez izana, 10/2022 Lege Organikoan, 14/2015 Foru Legean eta 17/2019 Foru Legean xedatutakoarekin bat etorritik, edo, zigortua izan bada, zigorra beteta eta dagozkion zuzenketa-neurriak hartuta edukitzea.	Erantzukizunpeko adierazpena eta, hala dagokionean, zigorra bete izana eta hartutako zuzenketa-neurriak egiaztatzen dituen dokumentazioa.
Xede edo jarduera berbererako Baztango Udalarekin hitzarmenik, kontratubiderik edo dirulaguntzarik sinatua ez izatea.	Erakundearen erantzukizunpeko adierazpena eta Udalak bere barne-erregistroen bidez egin beharreko egiaztapena.

9. ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Dirulaguntzaren erakunde onuradunek betebeharrak izanen dituzte:

9.1. Jarduerak gauzatzea.

- Dirulaguntza jaso duten jarduerak eskaeran adierazitakoarekin eta aurkeztutako dokumentazioarekin bat etorri beharko dute.
- Jarduerak 2025-2026 ikasturtearen barruan eta eskola-ordutegiz kanpo garatzen direla bermatzea.
- Jardueren izaera hezitzailea, kulturala, formatiboa edo sentsibilizaziozkoa ziurtatzea.

9.2. Berdintasunaren, diskriminazio ezaren eta bizikidetzaren printzipioak

- Dirulaguntza jaso duten jarduerak guztiek tratu-berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioak errespetatzen dituztela bermatzea.
- Erabat debekatuta dago sexu, arraza, xenofobia, homofobia edo transfobia izaera duen edozein jardun, eduki zein portaera, bai eta bertze edozein diskriminazio edo indarkeria mota ere.
- Bizikidetzaren, errespetuaren, inklusioaren, aniztasunaren eta gizarte-kohesioaren balioak sustatzea.

9.3. Hizkuntza-araudia, berdintasuna eta jasangarritasuna

- Baztango Udalaren eremuan euskara erabiltzea eta sustatzea arautzen duen udal-ordenantza ezarritakoa betetzea, eta ordenantza hori dirulaguntza jaso duten jardueren garapenean aplikatzen dela bermatzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 14/2015 Foru Legean xedatutakoa betetzea, berdintasun erreal eta eraginkorraren sustapena ziurtatuz.

- Ekitaldi publikoei eta jasangarritasunari buruzko apirilaren 17ko 36/2024 Foru Dekretuan ezarritakoa betetzea, dirulaguntza jaso duten jardueren antolaketari eta garapenari dagokionez.
- Erakunde onuradunek gauzatutako jardueren amaierako memoria aurkeztu beharko dute; memoria horretan, datuak sexuka banatuta agertuko dira, bai dirulaguntza jaso duten jardueren erabiltzaile edo onuradunenak, bai proiektua edo jarduera gauzatzen aritu diren langileenak.
- Dirulaguntza jaso duen jardueraren ondorioz sortutako dokumentazioan, publizitatean, irudietan edo materialetan, hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa eta ez-sexista egin beharko da, edukien diskriminazioa edo genero-estereotipoak saihestuz eta berdintasun-, aniztasun- eta erantzunkidetasun-balioak sustatuz.

9.4. Jardueren hezkuntza-kalitatea

- Jarduerak hezkuntza-eduki egokia dutela ziurtatzea eta deialdiaren helburuekin koherenteak izatea ziurtatzea.
- Jarduerak garatzeko kualifikazio egokia duten langileak edo profesionalak erabiltzea.
- Ikasleen eta familien parte-hartzea berdintasun-baldintzetan bultzatzea.

9.5. Dirulaguntzaren justifikazioa

- Dirulaguntza jaso duten jardueren justifikazio-dokumentazioa aurkeztea, memoria tekniko eta ekonomikoa barne, bai eta fakturak eta gastu-justifikanteak ere.
- Arrazoirik gabe datuak sexuka banatuta ez aurkezteak, berdintasun-irizpideei dagokien puntuazioa galtzea dakarke, edo, hala dagokionean, dirulaguntza proportzionalki gutxitzea.
- Justifikazio-dokumentazioa Udalaren eskura edukitzea lege ezarritako epean.

9.6. Publizitatea eta difusioa

- Erakunde onuradunek, hala dagokionean, dirulaguntza jaso duten jardueren eta horietan egondako udal-laguntzaren zabalkundea erraztu beharko dute

9.7. Kontrola eta jarraipena

- Udalak egin beharreko kontrol-, ikuskapen- eta jarraipen-lanak erraztea.
- Egin litezkeen egiaztapen- eta finantza-kontrolerako jarduketari men egitea.

9.8. Bertze betebeharrak

- Jarduerak gauzatzean gertatzen den edozein aldaketa garrantzitsu Udalari jakinaraztea.
- Dirulaguntza deialdian ezarritakoaz bertzelako helburuetarako ez erabiltzea.
- Dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudia eta aplikagarri den gainerako araudia betetzea.

9.9. Betebeharrak espezifikoak

- Jardueren finantza-bideragarritasuna bermatzea eta dirulaguntzak estaltzen ez dituen gastuak bere gain hartzea; horretarako, bertze finantzaketa-iturri batzuetara jotzen ahal izan da, betiere gainfinantzaketarik ez bada.
- Adingabeei zuzendutako jardueretan parte hartzen duten langile guztiek (kontratatuak zein boluntarioek) adingabeen babesaren eta boluntariotzaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoa bete beharko dute; zehazki, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa eduki beharko dute eta, atzeritarren kasuan, aplikagarri den araudiak eskatzen duen dokumentazio osagarria.

Oinarri hauetan ezarritako betebeharrak edozein betetzen ez bada, emandako dirulaguntza oso-osorik edo zati batean deuseztatzen ahal izan da, eta, hala dagokionean, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik.

10. ESKAERAK AURKEZTEA

10.1. Eskaerak non eta nola aurkeztu

Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta, Baztango Udalaren Erregistro Elektronikoa bidez ([Baztango Egoitza Elektronikoa](#)), elkartearen legezko ordezkaria den pertsonak sinatuta.

Eskaerak deialdi honetan ezarritako eredu arautuen arabera formalizatu beharko dira.

10.2. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 2026ko urriaren 30ean amaituko da, egun hori barne.

10.3. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Erakunde onuradunek eskaeran adierazitako balorazio-irizpideak egiaztatzeko beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Eskaerarekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- I. ERANSKINA: Baztango guraso elkarteek antolatutako jardueretarako dirulaguntza eskabidea eta erakunde onuradun izateko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena.
- II. ERANSKINA: 2025-2026 ikasturtean egindako jardueren justifikazio-memoria eta diruz lagun daitezkeen gastuen egiaztapena.

11. ESKAERAK BALORATZEKO ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

11.1. Dirulaguntzak emateko erregimena

Deialdi hau banakako ebaluazio-erregimenaren bidez izapidetuko da, oinarri hauetan ezarritako baldintza zein irizpideekin bat etorriz eta erabilgarri dagoen kredituaren mugen barne.

11.2. Prozeduraren instrukzioa

Prozeduraren instrukzioa Baztango Udaleko Hezkuntza Arloari dagokio, eta hark ofizioz egingen ditu aurkeztutako eskaerak egiaztatzeko eta baloratzeko nahiz ebazpen-proposamena egiteko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak.

11.3. Dokumentazioa osatzea

Aurkeztutako dokumentazioak deialdian ezarritako baldintzak betetzen ez baditu edo eskatutako dokumentazioa erantsi ez bada, erakunde interesdunari eskatuko zaio akatsa zuzen dezan edo derrigorrezko dokumentuak aurkez ditzan hamar laneguneko epean. Ohartaraziko zaio, halaber, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako emandako ebazpena eman ondoren.

11.4. Eskaeren balorazioa

Aurkeztutako eskaerak gehienez ere 70 punturekin baloratuko dira, irizpide hauen arabera:

Irizpidea	Puntuazioa	Lotutako egiaztapen-bidea
1. Jardueraren izaera <i>(Kategoria baztertzailerak dira; jarduerak kategoria batean zein bertzean kokatuko dira, kultur, prestakuntza edota aisialdi-jarduerak izan.)</i>	Gehienez 30 puntu	II. ERANSKINA: 2025-2026 ikasturtean egindako jardueren justifikazio-memoria eta diruz lagun daitezkeen gastuen egiaztapena.
Gurasoentzako prestakuntza-jarduerak	30 puntu	
Eskola komunitateari zuzendutako jarduerak, berdintasuna, koedukazioa, inklusioa edota kulturartekotasuna sustatzen dituztenak	30 puntu	
Euskararen sustapenerara eta erabilerara bideratutako jarduerak, baita tokiko kultura zein ohiturak ezagutzeko eta eskualdatzeko ere	30 puntu	
Ikasleentzako eskolaz-kanpoko jarduerak	20 puntu	
2. Jarduera ematen duenaren prestakuntza <i>(Kategoria ez-baztertzailerak dira; alegia, irakasle berak baldintza bat, bi edo hirurak bete ditzake)</i>	Gehienez 21 puntu	
Euskara-tituluak (EGA/baliokidea, 2. Hizkuntza eskakizuna/baliokidea)	7 puntu	Honako hauek emandako edo homologatutako ziurtagiriak: - Euskarabidea / Euskararen Nafar Institutua - Hizkuntza Eskola Ofizialak (HEO) - EGA titulua (Euskararen Gaitasun Agiria)
Hezkidetzari, berdintasunari, ikasketa feministei edo genero-ikasketei buruzko prestakuntza	7 puntos	- INAPek (Nafarroako Gobernua), Herri Administrazioaren Institutu Nazionalak (INAP estatala) edo bertze autonomia-erkidego batzuetako eta toki-entitateetako prestakuntza-eskolek zuzenean antolatutako edo emandako ikastaroak. - Unibertsitate publikoek (bereziki Nafarroako Unibertsitate Publikoak – NUP) emandako etengabeko prestakuntzako ziurtagiriak, titulu propioak edo graduondoko ikastaroak. - Berdintasuneko Erakunde Ofizialak: Berdintasunerako Nafar Institutuak (BNI) edo Emakumearen Institutuak (Berdintasun Ministerioa)

		emandako edo bermatutako prestakuntza. • Irabazi-asmorik gabeko erakundeak, fundazioak edo entitateak, baldin eta haien prestakuntza-planak NAPEk edo dagokion funtzio publikoko zuzendaritzak berariaz homologatu edo onartu baditu.
Jardueran eragin zuzena duen bertze prestakuntza osagarri bat (kulturartekotasuna, ezintasunen arreta edo jardueraren helburuari lotutako bertze batzuk)	7 puntos	• Nafarroako Herri Administrazioaren Institutua (NHAi) • Nafarroako Enplegu Zerbitzua (NEZ) • Herri-administrazioak: Bertze herri-administrazio batzuek (estatala, forala edo tokikoa) edo estatuko NAPEk emandako ikastaroak. Akatdemia-esparrua. • Unibertsitate publikoak: NUPEk edo Espainiako bertze unibertsitate publiko batzuek emandako titulu propioak, graduondokoak edo unibertsitate-luzapeneko ikastaroak (betiere edukia lanpostuarekin lotuta badago). Entitate laguntzaileak. • Sindikatuak edo bertze entitate batzuk (fundazioak, GKEak), baldin eta haien prestakuntza-ekintzak Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak homologatu baditu. Ziurtagiri horiek homologazioa baimentzen duen Zuzendari Nagusiaren Ebazpenaren berariazko aipamena jaso ohi dute.
3. Jardueraren edukia genero-berdintasunaren, inklusioaren eta kulturartekotasunaren printzipioekin bat etortzea / lerrokatuta egotea	Gehienez 10 puntu	II. ERANSKINA: 2025-2026 ikasturtean egindako jardueren justifikazio-memoria eta diruz lagun daitezkeen gastuen egiaztapena.
Berdintasunaren diagnostikoa, jardueraren ekintza-esparruan	2,5 puntu	<i>Azterketa labor bat aurkeztu beharko da, proposatutako jardueraren esparruan emakumeen eta gizonen artean egon daitezkeen desberdintasunak identifikatzeko (parte-hartzea, rolak, interesak, sarbidea eta abar).</i>
Ekintza, neurri edo jardura zehatzak, diagnostikoan hautemandako genero-desberdintasunak murrizteko	2,5 puntu	<i>Detektatutako desberdintasunak zuzentzeko gauzatutako ekintza zehatzak deskribatu beharko dira, eta adierazi beharko da nola laguntzen duten emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen (adibidez, parte-hartze orekatua sustatuz, emakumezko erreferenteak ikustaraziz, estereotipoak hautsiz, etab.).</i>
Aukera-berdintasuna, gizarteratzea eta ahultasun-egoeran edota gizarte-bazterketako arriskuan dauden kolektiboen parte-hartzea bultzatzeko ekintza, neurri edo jardura zehatzak	2,5 puntu	<i>Ahultasun-egoeran dauden kolektiboen (hala nola bazterketa-arriskuan dauden emakumeak, guraso bakarreko familiek —ama direnak—, etorkinak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, etab.) parte-hartzea eta inklusioa errazteko neurriak zehaztu beharko dira, eta adierazi beharko da nola bermatzen den haien sarbidea eta parte-hartze eraginkorra jardueran.</i>
Jardueraren ebaluazioa, genero-perspektiba, inklusioa eta kulturartekotasuna kontuan hartuta (adierazle zehatzak	2,5 puntu	<i>Jarduerak berdintasun-, inklusio- eta kulturartekotasun-arloan izandako eragina nola ebaluatuko den adierazi beharko da. Horretarako, sexuaren arabera berezitutako datuak eta, hala badagokio, bertzelako adierazle adierazgarriak (eragina, asebetetzea, emaitzak) jaso beharko dira, eta erabilitako metodologia labor azaldu</i>

eta sexuaren arabera berezitutako datuen bilketa)		
4. Baloraziorako bertzelako irizpideak	Gehienez 9 puntu	II. ERANSKINA: 2025-2026 ikasturtean egindako jardueren justifikazio-memoria eta diruz lagun daitezkeen gastuen egiaztapena.
Erakundeak udal-ekarpenaz gain bertzelako finantzaketa-iturri publiko batzuk lortzeko egindako ahaleginak	4,5 puntu	
Baztanen egoitza duten erakundeen arteko lankidetzak	4,5 puntu	

Balorazioak jardueren hezkuntza-, kultura- eta gizarte-interesa izanen du kontuan, bai eta oinarri hauetan ezarritako helburuekiko egokitzapena ere.

11.5. Ebazpen proposamena

Eskaerak ebaluatu ondoren, organo instruktoreak ebazpen-proposamena bideratuko du, eta deialdia ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

11.6. Deialdiaren ebazpena

Deialdi hau ebaztea Baztango Udaleko Tokiko Gobernu Batzorrari dagokio, organo instruktoreak proposamena egin ondoren.

Ebazpena erakunde interesdun denei jakinaraziko zaie, eta Baztango Udalaren iragarki-taulan edota egoitza elektronikoan argitaratuko da.

12. DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA ETA ORDAINTZEA

12.1. Dokumentazio justifikatzailearen egiaztapena

Erakunde onuradunek dirulaguntzapeko jarduerak gauzatu dituztela eta eskaeran adierazitako balorazio-kriterioak bete dituztela egiaztatzeko beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Aurkeztutako dokumentazioak oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatuko du Baztango Udalak, eta dirulaguntza behar bezala egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarri guztia eskatu ahal izanen du.

12.2. Desplazamendu-gastuak eta kultura-irteerak

Baztango ibarretik kanpo egindako kultura-irteerek eta hezkuntza-jarduerak eragindako gastuak onartuko dira, garraio-gastuak eta hezkuntza-, kultura- edo prestakuntza-jarduerekin lotutako sarrerak barne. Kanpoan eratutako kirol-, jolas- edo aisia-jardueretara soilik bideratutako irteerak.

Ibilgailu partikularretan egindako joan-etorrien kasuan, honako hauek adierazi beharko dira: gidaria nor den, joan-etorriaren jatorria eta helmuga, data eta jardueraren helburua.

Joan-etorria garraio-enpresa baten bidez egiten denean, dagokion justifikazio-faktura aurkeztu beharko da, indarreko araudiaren arabera.

12.3. Dirulaguntzaren ordainketa

Dirulaguntza behin aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu eta dagokion emandako ebazpena eman ondoren ordainduko da.

Ordainketa banku-transferentzia bidez egingo da, erakunde onuradunak adierazitako kontuan.

13. DIRULAGUNTZEN BETERAGARRITASUNA

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak izanen dira helburu berbererako lortutako bertzelako laguntza, dirulaguntza edo dirusarrerekin, betiere gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Edonola ere, jasotako laguntzen zenbateko osoak ezin izanen du gainditu dirulaguntzarpeko jardueraren kostu osoa.

14. DIRULAGUNTZAREN ITZULKETA

Jasotako diru-zenbatekoak osorik edo zati batean itzuli beharko dira oinarri hauetan ezarritako betebeharrak bete ez direla, emandako datuak faltsuak direla edo dirulaguntzarpeko gastuak behar bezala justifikatu ez direla egiaztatzen denean.

15. BALIABIDEAK

Oinarri hauen eta horietatik eratorritako administrazio-jarreraren aurka, indarreko araudian aurreikusitako administrazio-errekurtsoak eta errekurtsio jurisdikzionalak aurkeztu ahal izanen dira.

16. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

Deialdi hau oinarri hauetan ezarritakoaren arabera arautuko da eta, bertan aurreikusi ez den guztian, dirulaguntzen eta toki-administrazioaren arloan indarrean dagoen araudia aplikatuko da, eta, bereziki, honako hau:

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra
- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea.
- Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea.
- Arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko apirilaren 5eko 13/2023 Foru Legea.
- Aplikatu beharreko gainerako araudia.

BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA PÚBLICA DE SUBVENCIONES PARA ACTIVIDADES EDUCATIVAS, CULTURALES Y FORMATIVAS PROMOVIDAS POR LAS APYMAS DE LOS CENTROS EDUCATIVOS DEL VALLE DE BAZTAN

1. Objeto de la convocatoria.

Las presentes bases tienen por objeto regular la concesión de subvenciones destinadas a las APYMAS de los centros educativos del Valle de Baztan para la realización de actividades educativas, culturales, de sensibilización y de fomento artístico dirigidas al alumnado y sus familias.

Estas actividades deberán desarrollarse durante el curso escolar 2025-2026 y realizarse en horario no lectivo, ya sea en horario de mediodía, extraescolar o fuera del tiempo escolar ordinario.

En ningún caso las actividades subvencionadas podrán sustituir, complementar de forma estructural ni coincidir con contenidos curriculares obligatorios del centro educativo, debiendo tener un carácter extraescolar, complementario y no reglado.

2. Finalidad de la convocatoria.

La finalidad de la presente convocatoria es fomentar la participación activa de las familias en la vida educativa de los centros escolares del Valle de Baztan, mediante el impulso de actividades educativas, culturales, formativas y de sensibilización organizadas por las APYMAS.

Asimismo, se pretende promover la implicación de madres y padres en el proceso educativo de sus hijos e hijas, favoreciendo la colaboración entre familias y comunidad educativa, así como el desarrollo de actividades que contribuyan al bienestar, la convivencia y la formación integral del alumnado.

De forma complementaria, estas actividades podrán contribuir a facilitar la conciliación de la vida familiar, laboral y personal de las familias participantes.

3. Entidades beneficiarias

Podrán ser beneficiarias las APYMAS legalmente constituidas de los centros educativos del Valle de Baztan que cumplan los requisitos establecidos en la normativa vigente.

4. Actividades subvencionables

Serán subvencionables las actividades incluidas en las siguientes líneas:

- Euskera y tradiciones culturales del entorno
- Actividades de formación y sensibilización dirigidas a familias y alumnado en materias de interés educativo, social, cultural o comunitarios

- Actividades dirigidas a la promoción de la igualdad de género, la coeducación, la inclusión social y la interculturalidad
- Fomento y desarrollo de disciplinas artísticas

Las actividades deberán tener carácter educativo, complementario y no reglado.

5. Gastos subvencionables y no subvencionables:

5.1. Gastos subvencionables:

